

MARRAZOAREKIN URPEKARITZA

Bazen behin, Marte urez beteteta zegoenean, herri txiki bat. Bertan arrain pilo bat bizi ziren.

Arrain horietako hiruk Piper, Pepi eta Bizkorrek amets bat zuten, marrazoekin urpekaritza egitea. Pepi, ahula, gizona, eta alferra zen, Piper, altua, ez zen buruz azkarra eta eskuzabala zen eta Bizkor, oso argia, argala, eta aberatsa zen.

Egun batean, Pepi eta Piperrek plan bat egin zuten marrazoengana joateko, jakinda marrazoek jan egin zitzaketela.

Hantxe joan ziren marrazoen bila, itsasoan zeudenean marrazo bat ikusi zuten eta beldurtu egin ziren baina burugogorrak zirenez, Piper eta Pepik aurrera egin zuten.

Ordu batzuk pasatu ostean, marrazoekin jarraitzen zuten baina oraingoan oso kezkatuta marrazo batek Pepi eraman zuen eta, piper marrazoaren atzetik joan zen baina oraindik ez zekienez igerian azkar egiten ezin izan zuen jarraitu.

Piper oso larri zegoen, ez zekien zer egin, denbora bat pentsatzen egon ostean, Bizkorrengana joan zen herrira.

- Bizkor, Bizkor lagundu!!!
- Zer gertatzen da Piper?
- Marrazo batek Pepi eraman du eta ez dakit nora.
- Lasai bihar joango gara bere bila.
- Ados!!!

Biharamunean, Piper eta Bizkor Pepiren bila abiatu ziren.

- Nondik joan ziren?
- Harantz, ekialderantz.

Orduan ekialderantz jo zuten Pepi eta marrazoaren bila, kilometroak ibili ostean itsasoko kobazulo bat ikusi zuten, eta sartzea erabaki zuten.

Kobazuloan barrurantz joan ziren, kobazulo bukaeran marrazo talde bat ikusi zuten. Baina marrazoak esna zeuden.

- Pepi, Pepi etorri -esan zion Piperrek.
- Ixo!!! -esan zien Pepik.
- Iluntzean etorriko gara -esan zuen Bizkorrek.
- Ados -esan zuen Pepik.

Iluntzea heldu zenean, Piper eta Bizkorrek planari ekin zioten kobazulora sartu eta Pepi askatu zuten.

- Eskerrik asko!!! -esan zuen Pepik.**
- Ez horregatik!!! -esan zuten biak.**
- Baina gure ametsa bete nahi badugu igerian azkar egiten ikasi beharko dugu -esan zuen Bizkorrek.**
- Herrira joango gara -esan zuen Bizkorrek.**
- Ados -esan zuten beste biak.**

Herrira itzuli zirenean Bizkorrek entrenatzaile bati deitu zion hirurei igerian azkar egiten irakasteko.

Egun askoren ostean Pepi, Piper eta Bizkorrek beraien ametsa bete zuten: marrazoekin urpekaritza egitea.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Marteko plazan.

Marrozo